

KULTURAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILE DEIALDIA

Alkatearen 2025eko apirilaren 29ko ebazpenaren bidez onartua.

Kulturako teknikari laguntzaile izateko lanpostu bat aldi baterako eta lan-legepeko kontratu bidez betetzeko izangaien zerrenda bat osatzeko deialdia egiten da.

Deialdia egin da, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez, kulturako teknikari laguntzaile izateko lanpostu bat aldi baterako eta lan araubidean betetzeko izangaien zerrenda bat osatzeko.

Espte. 1832/2025

Uharteko Udaleko alkateak, 2025eko apirilaren 29an, deialdia onetsi zuen ondoko oinarriekin bat:

OINARRIAK

1.-Deialdia egin da, hautaprobei bidez, KULTURAKO LAGUNTZAILE TEKNIKO lanpostua betetzeko izangaien zerrenda bat osatzeko, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez.

C mailako langile bat kontratatuko da 7 hilabeterako eta lanaldi osorako. Maiatzaren amaieran kontratatuko dute.

Probaldia bi hilabetekoa izango da.

Lanaldiaren erregimena araudi aplikagarrian ezarritakoa izango da, baita oporren, jaiegunen, dieten ordainsarien eta gainerako eskubideen erregimena ere. Hala ere, lanaldia noiznahi aldatzen ahalko dute administrazio organo eskudunek, zerbitzuaren beharrek hala eskatzen dutenean.

1.2. Eginkizun hauek izanen ditu:

KULTURA TEKNIKARI LAGUNTZAILEAREN EGINKIZUNAK

- Jendeari arreta ematea Kultura Udal Zerbitzuaren programa, jarduera eta zerbitzuei buruzko gaietan, eta zerbitzu horiekin zerikusia duten gai guztietan orientatzea: ikastaroetan eta jardueretan izena ematea eta matrikulatzea; sarreraren informazioa eta salmenta; eskura dauden instalazioen eta materialen lagapenak eta/edo alokairuak, etab.
- Antolatutako kultur jarduerak zabaltzea eskura dauden bideak erabiliz: jardueren agenda, sare sozialak, web orria, bloga, flyerrak, Newsletterra eta inplementa daitekeen beste edozein.
 - Programatutako kultura eta turismo jarduerak zabaltzeko argitaratzen diren esku-programak, liburuxkak, kartelak eta bestelako euskarriak idatzi eta zuzentzea.
 - Datu baseetan, udal webgunean eta zerbitzuaren gainerako aplikazioetan dauden informazioa eguneratu eta mantentzea, programatutako jarduerak zabaldu eta sustatzeko.
 - Abiatutako jarduera kulturalen publizitatearen hedapena egokitzea: newsletter, banaketa zerrendak, sare sozialak... Baita deialdiak, prentsa oharrak eta komunikabideek eskatzen duten informazio guztia bidaltzea ere.
 - Abiatutako jarduera kulturalen publizitatearen banaketaren kontrol erregularra eta sistematikoa eta publizitatearen hedapen egokia. Sare sozialak, webguneak, kartelak...

- Egindako programaziotik abiatuta, esku-hartze kulturalako proiektuaren garapena antolatzen laguntzea.
- Programatutako kultura-jarduerak normal egiten direla kontrolatzen eta gainbegiratzen parte hartzea eta laguntzea.
- Garatutako kultura-jarduerak ebaluatzeko informazioa biltzea. Estatistikak eta zerrendak egitea.
- 'Patrón Base' sarrerak saltzeko programaren kudeaketa. Txarteldegietako edo ikuskizunetako dirusarreraren kontrola. Kontuan ematen diren dirusarreraren txostenak egitea.
- Kultura eskaintzan parte hartzen duten konpainien eta artisten fitxa teknikoak eta hitzartutako kontratuak garatzea, interpretatzea eta era efektibo-praktikoan aplikatzea.
- Kultur Arloak antolatutako kultur, gizarte eta jai ekitaldietara joan eta laguntzea.
- Kultur teknikariak koordinaziorako deitutako bilera profesionaletan parte hartzea.
- Espazioak kudeatzea eta koordinatzea (Kultur Etxea eta Plazaldea): eskaerak izapidetzea, beharrak detektatzea, atezaintzarekin komunikatzea, alokairuak, eskaerak artxibatzea, urteko memoriarako datu-basea,...; instalazioen oinarrizko mantentze-lanak gainbegiratzen laguntzea eta ekipamendua eta espazioak berrikustea; kultura-ekipamenduetan egiten diren erabilerak eta jarduerak etengabe ebaluatzea.
- Agente soziokultural eta artistikoekin koordinatzeko laguntza. Talde eta elkarten datuak eguneratuta edukitzea www.huarte.es webgunean.
- Udal Kultura Zerbitzuaren espedienteen administrazio-izapideak egitea eta osatzea, ebazpenepen jarraipena eta kontrola eginez. Ebazpenak, jakinarazpenak eta komunikazioak egitea; kopiak jasotzea eta jaso izanaren adierazpenak biltzea, eta dagozkien espedienteetan sartzea.
- Kultur arloko argitalpenen artxiboa mantentzea. Argitalpenak Lege Gordailura bidaltzea. Argitalpen berrietarako lege gordailuaren zenbakia eskatzea.
- Inauterietako, Aste Santuko eta udako kanpamenduetako eta kultura arloak antolatutako ikastaroen ordainagiriak egitea, errenta tarteen arabera.
- Laguntza ematea kultura arloko diru-partidak kudeatzeko administrazio lanetan: kontratuak, fakturak, artxibatzea eta datu-baseen mantentze-lanak.

1.3. Lanpostuak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen **C mailako** ordainsariak izanen ditu. Halaber, plantilla organikoan aurreikusten diren osagarriak jasoko ditu, baita hitzarmen kolektiboz lor daitezkeenak ere.

2.- Izangaiek bete beharrekoak.

Probak hasten diren egunean, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Izatea Espainiako nazionalitatea, edo Europar Batasuneko estaturen batekoa, edo langileen joan-etorri askea aplikatzen den estatu batekoa, jarraikiz Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatuei; parte hartzen ahal dute, orobat, espainiarren eta Europar Batasuneko kide diren beste estatuetakako herritarren ezkontideek, edo aipatutako nazioarteko tratatuen aplikazio eremuan sartutako estatuetakako herritarren ezkontideek, baldin zuzenbidez bananduta ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, baldin zuzenbidez bananduta ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo, hortik gorakoak izanez gero, haien kontura bizi badira.

b) Hamasei urte beteak izatea eta ez gainditzea erretiroa nahitaez hartzeko ezarritako gehieneko adina.

c) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

d) **Batxilergoko titulua, Lanbide Heziketako bigarren mailakoa edo baliokideren** bat izatea.

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren egiaztagiria eduki beharko da.

Eskatutako kategorian sartzeko bide ematen duten ikasketa baliokideak alegatzen dituzten izangaiek baliokidetasun hori aitortzen duen lege- edo erregelamendu-xedapena aipatu beharko dute edo Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako ziurtagiria aurkeztu.

e) Langabezia egotea eta **Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda** egotea enplegu-eskatzailerik gisa edo enplegua hobetzeko.

f) **Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)** izatea, Nafarroako Gobernuak emana, edo ofizialki baliokidea den beste titulu bat, eta zehazki, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoaren **C1 mailako** baliokidetzat jotzen diren tituluak.

g) Eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo gabetua ez izatea, eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia ez izatea. Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko aitortzea edo promesa aurkeztu beharko dute, beren Estatuko Funtzio Publikoan sartzeko eragozten dien diziplina zehapenik edo zigor penalik ez dutela adierazteko.

Izen-ematea erregistro bidez egin behar da instantzia orokorraren bidez, **maiatzaren 19a, astelehena, 14: 00ak baino lehen**, web-orriaren bidez (www.huarte.es) edo, bestela, Udalaren bulegoetan bertan, “kulturako teknikari laguntzailearen deialdia” adierazita. Izena emateko orria bete behar da (II. eranskina) eta titulazio akademikoa, euskarako titulazioa eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuko inskripzioa erantsi.

Baldintza horiek guztiak agiri bidez egiaztatzea beharko dituzte hautatzen diren eta aldi baterako kontratazioarako deitzen diren izangaiek, eskatzen zaien momentuan, kontratua formalizatu baino lehen.

Agiri horiek aurkezten ez dituztenak, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, ezin izanen dira kontratatatu. Haien jarduketak guztiak baliorik gabe geldituko dira, parte hartzeko eskabidean faltsukeriarik egonez gero izan dezaketen erantzukizunaren kalterik gabe.

Aurreko baldintzak probak hasteko egunari dagozkiola ulertzeaz gain, kontratua formalizatzeko orduan ere bete beharko dira.

Espedientea formalizatzeko tasa eta azterketa-eskubideak ez dira kobratuko.

3.-Epaimahai kalifikatzaileak.

3.1. Epaimahai kalifikatzaileak honako kide hauek izango ditu:

Mahaiburua: Alfredo Arruiz Sotés, Uharteko Udaleko alkatea edo honek eskuordetzen duena.

Idazkaria: Gustavo Jiménez Martín, Uharteko Udaleko Giza Baliabideen kudeatzailea edo eskuordetzen duena.

Mahaikidea: Jokin Campion Gastón, Uharteko Udaleko Kultura Zerbitzuko teknikaria edo eskuordetzen duena.

Mahaikidea: Inge Zelaia Zubikoa, Uharteko Udaleko idazkaria edo eskuordetzen duena.

Batzordekidea: Langileen legezko ordezkariak izendatu beharrekoa.

3.2. Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da.

3.3. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduez sor daitezkeen arazo guztiak.

3.4. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza eska dezake probarako.

4. Deialdi honetan bi proba egingo dira, egun berean, bata bestearen ondoren.

- Test moduko proba bat
- Garapenerako azterketa praktikoa

Test erako azterketak 30 galderako azterketa izango du, eranskinean argitaratutako gairerrendaren arabera.

Proba praktikoa bi proba labur izanen ditu, lanpostuarekin zerikusia duten bi kasuri buruzkoak.

Azterketa Kultur Etxean izango da, zerrendak argitaratzean argitaratuko den egunean. Nolanahi ere, kontratazioa presakoa denez, maiatzean egingo da.

Azken kalifikazioa ateratzeko, izangai bakoitzak bi faseetan lortutako puntuazioak batuko dira.

Guztira 50 puntu emanen dira.

Guztira 15 puntu baino gehiago lortzen dituzten pertsonak Udalak lanpostu honetarako egindako aldi baterako kontratazioen zerrendan sartuko dira.

Hautagaiek hiru egun baliodun izango dituzte egoki iritzitako alegazioak egiteko.

5.-Gaingiduen zerrenda eta deialdia.

5.1. Probak kalifikatu ondoren, epaimahaiak Uharteko Udalaren iragarki oholean eta www.huarte.es webgunean argitaratuko du probak gaingidu dituztenen zerrenda, lortutako puntuazio osoaren hurrenkeran, eta alkateari bidaliko dio, onets dezan, hautapen prozesuaren espediente osoarekin batera. Gaingiduen duten pertsonak, gainera, etorkizuneko aldi baterako beharrak betetzeko zerrendan sartuko dira, betiere udalaren araudiaren barruan.

Berdinketarik gertatuz gero, zozketaz ebatziko dira.

5.2. Kontratatuak alta emanen zaie eta Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean afiliatuko dira. Beraz, haien kargura izanen dira dagokien kuota eta P.F.E.Z.aren atxikipena. Bidezkoak diren zenbatekoetan.

6.-Errekurtsoak. Deialdi honen, bere oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, errekurso hauetako bat aurkezten ahalko da, hautara:

a) Berraztertze errekurtsua, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

c) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.

Epaimahaiaren egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsua paratzen ahalko da, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik aitzina.

Uharten, 2025eko apirilaren 30ean.-Uharteko Udaleko alkatea, Alfredo Ruiz Sotés jauna.

I. Eranskina GAIAK

1. 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa. Nafarroako toki-erakundeak. Atariko Titulu. I Titulua.
2. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa. Atariko Titulu. I eta II Tituluak.
3. Administrazio agiriak. Instantzia, ziurtagiria, jakinarazpena, ebazpenak. Artxiboko tratamendua eta antolaketa.
4. Uharteko Udalaren antolaketa eta funtzionamendua.
5. Uharteko Udalaren Kultura Zerbitzuaren antolaketa. Herriko errealitate soziokulturala, ospakizunak eta kultura eragileak.
6. Ordenantza, Uharteko Udalaren gizarte eta kultur instalazioen funtzionamendua eta erabilera arautzen dituen.
7. Ordenantza, Uharteko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen.
8. Ordenantza, herriko talde eta elkarteendako dirulaguntzak emateari buruzkoa, kultura, hezkuntza, berdintasun, euskara eta gazteria arloetan jarduerak eta proiektuak antolatzeko.
9. Ordenantza, Uharteko Udalean eta haren mendeko erakunde eta enteetan hizkera eta irudi ez-baztertzailaren erabilera eta sustapena arautzen dituen.
10. Ordenantza, Uharteko udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen.
11. Festetako eta kulturako jarduerak programatu eta gauzatzea.
12. Zabalkundea, publizitatea, ikusleen arreta eta kudeaketa kultur jardueretan.
13. Udaletako kultur programen finantzaketa eta laguntzak.
14. Nafarroako Antzokien Sarea.

II Eranskina: SOLICITUD DE INSCRIPCIÓN

UHARTEKO UDALEKO KULTURAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEEN ALDI BATERAKO ZERRENDAK OSATZEKO DEIALDIAN.

..... jaun/andrea adinez nagusia,..... zenbakidun Nortasun Agiri Nazioala (edo baliokidea den identitate karta) duena,koren(e)an jaioaen (.....), egungo helbidean (.....) duena,..... kalea eta posta kidea. Telefonoak / y e-posta

Azaltzen du:

Uharteko Udaleko KULTURAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILE izateko ordezkapenak egiteko deialdian onartua izatea eskatzen dudala.

Ez dudala lanpostuan aritzea galarazten didan eritasun edo akats fisiko edo psikikorik.

Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.

Ez naizela diziiplina espediente bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia izan, eta ez nagoela desgaitua eginkizun publikoak betetzeko.

Eskabideak aurkezteko epearen azken egunean, eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen ditudala:

- Eskatzen den gutxieneko titulazioa (LH 2. maila edo baliokidea).
- Euskararen gaitasun agiria, C1 edo baliokidea.
- NEZan enplegu-eskatzaile edo enplegu-hobetzaile gisa izena ematea.

Agiri hauek aurkezten ditudala::

- NANaren fotokopia.
- Deialdian eskatzen den maila egiaztatzen duen titulazioa.
- Enplegu-eskatzailearen txartela, edo langabezia-egoeraren frogagiria, horren arabera ez baitu tasa ordaindu behar.
- Deialdian eskatzen den euskara maila egiaztatzen duen titulazioa.

Onartzen dut kontratazio-deialdi honi buruzko jakinarazpenak modu baliozkoan egitea goian adierazitako helbide elektronikoan.

Baimena ematen diola Uharteko Udalari sakelako telefonoaren zenbakia eta/edo e-maila eskuratzeko, deialdiarekin zerikusia duten jakinarazpenetarako.

Onartzen dudala datu pertsonal horiek gordetzea, zaintzea eta tratatzea, deialdi hau tramitzeko eta bertatik sor daitezkeen kontratazio zerrendak kudeatzeko.

Azaldutakoagatik,

Eskabide hau onartzea eta aipaturiko deialdian parte hartzea eskatzen dut.

Uharten, 2025eko maiatzaren(e)an.

(Sinadura)